



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA: DEIADAR MENDIEN EGUNAREN XV. EDIZINOA

18/06/03

## **Mila persona baino gehiago heldu dira Oiz mendira, Batzarretarako dei tradizionalen parte hartzeko**

Barriri entzun da adarren soinua Bizkaiko behatokian, bost urte geroago. Zerua estalita egon dan arren, Batzarretarako dei tradizionalen parte hartzeko gogoak mila persona baino gehiago animau ditu gaur Oiz tontorrera igotzen, Deiadar Mendien Egunaren hamabosgarren edizinoan parte hartzeko. Bizkaiko Batzar Nagusiek eguna martxa klasiko bilakatu dabe mendi eta Bizkaiko tradizio zaleentzat.

Batzar Nagusiek Durangoko Alpino Tabira mendi taldeagaz batera antolatu daben mendiko ibilaldia goizeko 09:00etan hasi da Gerediagako Batzarretxetik oso gertu dagon Bizkaiko Garai herri txikian. Lehenengo mendizale taldeak 11:30etik aurrera hasi dira Oizeko 1.026 metroetara ailegetan. Tontorrean, eguerdiko hamabietan, Batzar Nagusietara deitzeko tradizioa bete da, kondairak esaten dauenez Erdi Aroan egiten zan moduan.

Bizkaiko Batzar Nagusiek 2004tik antolatzen dabe jardunaldia, erakundea garai modernoan barriri beharrean hasi osteko 25. urteurrena zala eta. Urte horretatik milaka izan dira bost deiadar tontorretakoren batetik (Gorbeia, Kolutza, Sollube, Oiz edo Ganekogorta) adarraren soinua entzun ahal izan daben adin guztietako bizkaitarrak. Lurraldeko kronista batzuek, Antonio Truebak, adibidez, esaten dabenez, XIV. eta XV. mendeetan Gernikako Arbolaren azpian egiten ziran bileretara deitzeko moduetako bat zan.

Tontorrean, ohorezko aureskuaren eta dantza tradizionalen ostean, Alpino Tabira taldeko ordezkariak Bilboko Gailurra taldeko ordezkariari emon deutso adar ofiziala, datorren urteko bagileko lehenengo domekan Ganekogortara igoera antolatu daien. Batzar Nagusiak ordeztuz Ana Otadui presidentea joan da, eta beragaz batera Bizkaiko beste ordezkari batzuk, Jon Atutxa, Oscar Arana, José Angel Basauri, Aitor Ibarra, Mikel Bagan, Alfredo Olea eta Kontxi Claver batzarkideak, adibidez. Josune Gorospe legebiltzarkidea be Oizen egon da.

Adarra entzun aurretik, Batzar Nagusietako presidentek eskerrak emon deutsez bertara joan diranei “kirola, natura eta historiaren eta kondairaren arteko nahasketea batzen dituan tradizio” honetan parte hartzeagaitik, eta baita mendi taldeei be, “gure Bizkaia maitea hobeto ezagutzeko aukerea emoten deuskun hitzordu hau errealdade bilakatzeagaitik”. Ana Otaduiren berbetan, “herritarren partaidetzarako dei tradizional” honek, gaur egun Batzar Nagusiek izan gura dabena sinbolizetan dau: “XXI. mendeko batzar gertukoa eta eraginkorra, atzean historia aberatsa daukana, Batzarretxeak daukazana Gernikan, Abellanedan, Gerediagan eta Bilbon, gure Bizkaiaren aniztasun aberatsaren sinbolo moduan”.

Tontorraren inguruan hamaiketako txiki batez indarrak berreskuratzeaz eta musikaz eta euskal dantzez gozatzeaz aparte, bertaratuek opari ekologiko bat jaso dabe. Horri esker, ez da erabili ostean botaten dan edalontzirik egon Oiz tontorrean egin dan hamaiketakoan.

NOTA DE PRENSA

XV EDICIÓN DEL DÍA DE LOS MONTES BOCINEROS

03/06/18

## **Más de mil personas coronan Oiz para participar en la tradicional llamada a Juntas**

El sonido de los cuernos volvió a sonar cinco años después en el mirador de Bizkaia. A pesar de los cielos encapotados, las ganas de participar en la tradicional llamada a Juntas han animado hoy a más de mil personas a subir hasta la cima del Oiz para participar en la decimoquinta edición del Día de los Montes Bocineros, una jornada que las Juntas Generales de Bizkaia han convertido ya en una marcha clásica para los amantes a la montaña y las tradiciones vizcaínas.

La ruta montañera, organizada por las Juntas Generales en colaboración con el club Alpino Tabira de Durango, ha partido a las 9 de la mañana desde la pequeña localidad vizcaína de Garai, muy próxima a la Casa de Juntas de Gerediaga. Los primeros grupos de mendizales han ido alcanzado los 1.026 metros del Oiz a partir de las 11:30 horas. Ya en la cumbre, a las doce del mediodía se ha realizado la tradicional llamada a las Juntas Generales, como dice la leyenda se hacía en tiempos de la Edad Media.

Las Juntas Generales de Bizkaia organizan esta jornada desde el año 2004, coincidiendo con el 25 aniversario del restablecimiento de esta institución en la época moderna. Desde ese año, miles de vizcaínos y vizcaínas de todas las edades han podido oír, desde alguna de las cinco cimas bocineras (Gorbeia, Kolutza, Sollube, Oiz o Ganekogorta) el sonido del cuerno, emulando la llamada primitiva que según cronistas del territorio como Antonio Trueba afirmaban que era una de las maneras utilizadas que tenían en los siglos XIV y XV para dar aviso de las reuniones bajo el Árbol de Gernika.

En la cumbre, tras un aurreku de honor y unas danzas tradicionales, el representante del club Alpino Tabira ha hecho entrega del cuerno oficial al representante del club Gailurra de Bilbao para que organicen el primer domingo de junio del año próximo la subida al Ganekogorta. En representación de las Juntas Generales ha acudido su presidenta, Ana Otadui, quien ha estado acompañada de otros representantes de Bizkaia como los apoderados Jon Atutxa, Oscar Arana, José Angel Basauri, Aitor Ibarra, Mikel Bagan y Alfredo Olea, y la apoderada Kontxi Claver. En Oiz ha estado también la parlamentaria, Josune Gorospe.

Antes de tañir el cuerno, la Presidenta de las Juntas Generales ha agradecido tanto a los asistentes por haber participado en esta “reinterpretada tradición que combina deporte, naturaleza y una mezcla de historia con leyenda”, como a los grupos alpinos por “hacer realidad esta cita que nos permite conocer mejor nuestra querida Bizkaia”. En palabras de Ana Otadui esta “llamada tradicional a la participación ciudadana” simboliza lo que hoy quieren ser las Juntas Generales: “un parlamento del siglo XXI cercano y eficaz con una rica historia detrás con sus Casas de Juntas en Gernika, Abellaneda, Gerediaga y Bilbao, simbolizando la rica pluralidad de nuestra Bizkaia”.

Además de reponer fuerzas con un pequeño aperitivo y disfrutar de la música y las danzas vascas en las inmediaciones de la cumbre, los asistentes han recibido un obsequio ecológico con el fin de evitar el uso de vasos de plástico desechables en el avituallamiento en la cima del Oiz.